

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 25 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai dira eta guztira 25 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 1,6 puntu balio du eta bigarrenean 0,6. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 850 hitz gehienez. 	35 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	50 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzen da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

BARREA MAMUA DENEAN

Txikia izan zein eztanda eragin, barreak badu eragin askatzailea. Baina bada barrea horrela bizi ez duenik eta, aldiz, mingarri suertatzen zaionik. Are gehiago: baldintzatzaile. Izan ere, bada barreak entzun eta, hala den jakin gabe ere, norberaz ari direla uste duenik. Automatikoki. Aldiro. Horrela, askatu beharrea, barreak hondoratu egiten du; osasunari on egin beharrea, kalte egiten dio, barruko beldurra elikatuz, pixkanaka-pixkanaka. Inork ez du gustuko besteek norberari barre egitea, baina batzuei jasangaitza egiten zaie. Barrea mamu bihurtzen zaie eta beldur horri *gelotofobia* esaten zaio.

«Barreak badu zentzu positiboa kultura guztietan –edo gehienetan behintzat–, gertutasunarekin, konplizitatearekin, dibertitzearekin lotua», nabarmendu du Jon Arruabarrena psikologoak. «Gelotofobia duten pertsonen zailtasuna dute barreen zentzua bereizteko eta, emozio positiboekin lotu beharrea, emozio negatiboekin lotzen dute barrea, eta hortxe babesten dute beren burua». Karmele Salaberria EHUko irakaslearen ustez, «babesteak, besteen barreak saihesteko mekanismo gisa, egoeretara edo jendearengana ez gerturatzea dakar edo izkina batean gelditzea; zenbaitek edan egiten du, edo bestelako substantziak kontsumitu, horri aurre egin ahal izateko». Izan ere, bestelako fobien antzera, antsietatea, beldurra edota larritasuna sortzen ditu gelotofobiak, eta horrek eragina du gaitza dutenen egunerokoan: «muturrera joanda, gelotofobiak etxean giltzapetuta egotera kondenatu ahal ditu eta ez ausartzera harremanak egiten, harreman intimoak izaten, edo lanera joaten».

Batera edo bestera, kezkarriena da adituek buru-osasunarekin –zehazki, antsietate sozialaren nahasmenduarekin– lotutako beste gaixotasun batzuen adierazletzat dutela gelotofobia. «Ez dut ezagutzen gelotofobia bakarrik duen kasurik: orokorragoa den beste fobia sozial baten adierazlea da barreari zaion fobia». Barreari beldurra izateaz gain, bestelako zailtasunak izan ditzakete jende askorekin egoteko eta begiradei eusteko. Salaberriak azaldu duenez, muturreko

egoerara iristeko ez da arrazoi bakar bat behar: «Hainbat faktorek eragindakoak izaten dira nahaste mental guztiak, eta badaude arrazoi biologikoak, psikologikoak eta sozialak».

Zorione Aperribaik ere (Algaraka Barreterapiako arduraduna) ezinbestekotzat jotzen du nork bere burua onartzen eta maitatzen ikastea. «Ez da egun batetik bestera egin daitekeen zerbait, bitzta osoko lanketa da». Ohartarazi duenez, gizartean agerikoa da «exijentzia eta elkarrenganako kritika», eta askok bere buruarekin segurtasun gabezia handia du. Horri aurre egiteko eta besteen iritzietatik defendatzeko modua, nork bere buruari barre egiten ikastea izan daiteke: «norberaren hutsegiteei barre egiteko gai dena autoestimua ona garatzeko gai da».

Gelotofobia izateak ez du esan nahi pertsona horiek umorerik ez dutenik. Arruabarrenaren esanetan, «hautsita daukate barreak interpretatzeko termostatoa eta ez dituzte ondo neurtzen errealitateak ematen dizkien seinaleak: beren interpretazioaren arabera egiten dituzte harremanak, ez besteek dituzten intentzioen arabera». Aurre egiteko, gelotofoboak arazo hori duela jakin behar du lehenik, «egon daitezke pertsona batzuk zailtasunak zailtasuntzat hartzen ez dituztenak. Pentsa dezakete inguruko arazoa dela eta ez berena». Kontziente izanda, bigarren pausoa konpromisoa hartzea izango litzateke, eta bideak bilatzea hori arintzeko, teknikaren edo terapiaren baten bidez. Ingurukoek ere lagun diezaioke, batez ere «oso ulerkorrak» izanda eta gutxietsi gabe, zailtasuna balioetsiz eta zalantzan jarri gabe.

ITURBE, A. Berria, 2018ko martxoa. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zerk eragiten du gelotofobia?

- a) Ingurukoen barre mingarria gustuko ez izateak.
- b) Besteen barrea behar bezala ez ulertzeak.
- c) Barrearen eragin askatzaileari beldur izateak.

2. Zer sor dezake gelotofobiak?

- a) Muturrera eramanda, sustantziak kontsumiaraztea.
- b) Gaixoaren egunerokotasunean hainbat ondorio txar.
- c) Bestelako fobietan ez bezala, antsietatea eta larritasuna.

3. Zer pentsatzen dute adituek gelotofobiaz?

- a) Beti beste buru-gaixotasun batekin batera jasaten dela.
- b) Gelotofobia baino ez duten gaixoak egon daitezkeela.
- c) Ez duela beste buru-gaixotasunekin zerikusirik.

4. Zer ezaugarri dute gelotofobia duten gaixoek?

- a) Ez dutela umorerik eta ez dakitela besteen barrea interpretatzen.
- b) Umorea badutela, baina gainerakoek gaizki interpretatzen dutela.
- c) Barrea ulertzeko arazoak izan arren, umorea izan dezaketela.

5. Zer du ezinbesteko gelotofoboak?

- a) Ezer baino lehen terapia egitea.
- b) Arazoa beragan dagoela onartzea.
- c) Ingurukoekin ulerkorra izatea.

2. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

GORROTO-DELITUEI BEGIRADA OROKORRA

Maiatzaren 17an, homofobia eta transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiko garapenerako lankidetzako buruak eta ALDARTE elkarteko Gipuzkoako arduradunak *OSGI gorroto-delituak* (orientazio sexualaren eta genero-identitateen ondorioz jasaten diren gorroto-delituak) proiektuaren aurtengo emaitzen berri emango dute. *OSGI gorroto-delituak* mundu osoan gertatzen dira, gizarte guztietan. Nahiz eta sexu- eta genero-aniztasunaren kolektiboa **6** gero eta lege gehiago egon, oraindik, zenbait lekutan LGTBI kolektiboko kidea izatea oso arriskutsua da: hamaika herrialdetan heriotza-zigorra **7** zaie, berrogeita hemeretzi herrialdetan kriminalizatu egiten dituzte eta berrogeita hamabost herrialdetan ez diete laguntzarik ematen. Ezinbestekoa da aipatzea, gaur egun, soilik bederatzi estatutako konstituzioek **8** dutela sexu-autodeterminazioa. Espainiako Barne Arazoetako Ministerioaren txostenean jasotako datuak aintzat hartzen baditugu, Euskadi da estatuan gorroto-delitu gehien duen hirugarren erkidegoa. Probintziak aztertuz gero, Bizkaia laugarren postuan dago, Gipuzkoa zazpigarrenean eta Araba atzerago. Zenbaki horiek erakusten digute **9** honek gure lurraldean zernolako dimentsioa duen eta, batez ere, aipatutako moduko **10** duten garrantzia.

Gipuzkoako Foru Aldundiak duen proiektu horrek helburu argi bat du: sexu-afektibitate zein nortasun ez-hegemonikoak dituzten pertsonen **11** duten indarkeria azaleratzea eta errealitate horri aurre egiteko irtenbide positiboak sortzea. **12**, proiektu horren bitartez, mugak zeharkatzen dituen arazoaren inguruko kontzientziarazioa eta sentikortasuna **13** nahi dira jendartean. Gipuzkoako Foru Aldundiko garapenerako lankidetzako buruak hauxe adierazi du: “LGTBI kolektiboko kideen eskubideen defentsa giza eskubideen defentsarekin lotuta dago, eta ezinbestekoa da berdintasunean oinarritutako gizarte eraikitzeke”. **14** da Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetz-politikaren **15** nagusia.

Gorroto-delituak tolerantziarik ez izatea eta aniztasuna ez onartzea dute **16** eta, horrez gain, pertsonen berezko duintasuna eta giza eskubideak ukatzea. Arau-urratze horiek, delitu direnez, **17** askotarikoa dela aitortzen duen printzipioaren hondamena dakarte, eta, horrekin batera, errespetu eta begirune falta adierazten dute. **18**, gorroto-delituak biktimen askatasun- nahiz berdintasun-eskubidea **19** dute. Biktima edo biktimak LGTBI kolektiboaren parte izateagatik aukeratzen direnean, *OSGI gorroto-delituez* hitz egiten da.

ALDARTE elkarteak, 1994ko otsailaz geroztik, sexu- eta genero-aniztasunaren **20** egiten du lan. LGTBI kolektiboak jasaten duen tolerantzia ezak eta aurreiritzi sozialek sortzen dituzten arazoei konponbide positiboak bilatu nahi dizkie. **21**, arreta, heziketa eta sentikortasun-errekurtsoak martxan jartzen ditu eta jendarteari eskaintzen dizkio. ALDARTEren proiektuaren baitan, ikasturte honetan, hainbat ekintza **22** dituzte topagunerako eta elkargunerako espazioa izateko, etorkizuneko profesionalak gai honen inguruan sentsibilizatzeko, errealitatea azaleratzeko, **23** erreminta izateko eta sexu- eta genero-aniztasuna defendatzeko.

Maiatzaren 16an “*OSGI gorroto-delituei begirada orokorra*” dokumentala aurkeztuko da Tabakalera. Dokumental horren bitartez, sexu-orientazio eta genero-identitateagatik gertatzen diren gorroto-delituei aurre egiteko estrategiak laburbildu nahi izan dituzte eta, **24**, hainbat testuingurutan LGTBI kolektiboko pertsonen bizi duten errealitatea bistaratu. *OSGI gorroto-delituen* begirada zabalagoa eskaini nahi izan dute, esperientzia pertsonal zein kolektiboetan oinarritzen diren bizirauteko ekintzetan, aurre egiteko mekanismoetan eta eraldatzeko estrategietan ikuspuntua jarrita. Lan horrek Guatemalako, Nikaraguako, Mexikoko, Honduraseko, Espainiako eta Euskadiko zenbait LGTBI elkartetako ordezkarien **25** jasotzen ditu. Aurkezpen ekitaldia Donostian izango da, arratsaldeko 18:30ean Tabakalerako Z aretoan, eta sarrera doan izango da.

2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- | | | |
|--|--|---|
| 6. a) hornitzeko
b) babesteko
c) ernaltzeko
d) arakatzeko | 7. a) ebasten
b) eusten
c) eransten
d) ezartzen | 8. a) irensten
b) ezeztatzen
c) zedarritzen
d) bermatzen |
| 9. a) galera
b) afera
c) ganora
d) estaldura | 10. a) egitasmoek
b) iruzkinek
c) esleipenek
d) iruzurrek | 11. a) kudeatzen
b) gailentzen
c) pairatzen
d) oldartzen |
| 12. a) Esanak esan
b) Edonola ere
c) Era berean
d) Ezer baino lehen | 13. a) sustatu
b) antzutu
c) baztertu
d) saihestu | 14. a) Halabeharrez
b) Horrezkero
c) Horrenbestez
d) Horrexegatik |
| 15. a) eskumen
b) ardatz
c) lekuko
d) bitartekari | 16. a) ezaugarri
b) aztoragarri
c) laidogarri
d) hunkigarri | 17. a) zilegitasuna
b) berritasuna
c) gizatasuna
d) marginaltasuna |
| 18. a) Hala nola
b) Behingoz
c) Artean
d) Azken finean | 19. a) uztartzen
b) lausotzen
c) zapuzten
d) lotzen | 20. a) egituran
b) elkargoan
c) ertzean
d) esparruan |
| 21. a) Horretarako
b) Aitzitik
c) Bestela
d) Osterantzean | 22. a) behatu
b) aztoratu
c) gauzatu
d) begitandu | 23. a) moldaketarako
b) hautaketarako
c) jostaketarako
d) salaketarako |
| 24. a) hurrenez hurren
b) bide batez
c) bataz beste
d) horiek horrela | 25. a) ezagutzak
b) testigantzak
c) morrontzak
d) jakintzak | |

Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA AZKEN ORRIALDEETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.

Ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

EGOERA: Hegazti-gripea, listeriosia, anisakiasia...

Jaten dugunak, noizbehinka, gaixotasunak eragiten dizkigu eta horrek zalantzan jartzen du jan ohi dugunaren kalitatea.

Gaiaren garrantziaz jabeturik, iritzia emateko idatziko duzu herriko aldizkarian.

GAIA: OSASUNTSUA DA JATEN DUGUN GUZTIA?

Osasunaren Mundu Erakundeak esandakoaren arabera, bi milioi pertsona baino gehiago hiltzen dira urtero jan ohi dutenaren ondorioz.



Merkatuen eta jakien ekoizpenaren globalizazioa ez ezik, jateko ohituren aldaketa ere bada gehienetan gaixotasunen eragile nagusia.

Osasun-kontrolaz gain, oso garrantzitsua da elikaduraren inguruko heziketa bultzatzea, jaten dugunak gure osasunean izan ditzakeen ondorioez ohartzeko.

- Zer kalitatekoa da jaten duguna?
- Zergatik gertatzen dira, tarteka, halako edo bestelako gaixotasunak?
- Zer erantzukizun dugu kontsumitzaileok? Arduratzen al gara jaten dugunaz?
- Zein da konponbidea arazoak ekiditeko? Zer egin beharko lukete agintariek?

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

[A eredua]

- 1 ariketa: aukeratu erantzuna.
- Irakurgaia: «Barrea mamua denean»

1.	B	2.	B	3.	A
4.	C	5.	B		

- 2. ariketa: hutsuneak bete.
- Irakurgaia: «Gorrito-delituei begirada orokorra»

6.	B	7.	D	8.	D
9.	B	10.	A	11.	C
12.	C	13.	A	14.	D
15.	B	16.	A	17.	C
18.	D	19.	C	20.	D
21.	A	22.	C	23.	D
24.	B	25.	B		